IRUTXULOKO **HITZA**

Euskararen Eguna

Donostian 2026

San Telmo Museoa

EUSKARA

maitatu

erabili

ikasi



Euskal gizartea *atzo*
Euskal gizartea *gaur*

STM San Telmo Museoa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
donostia kultura

Euskara ospatu eta aldarrikatu

Hemen daukagu, beste urte batez, Euskararen Nazioarteko Eguna. Abenduaren 3an ospatzen bada ere, egun horretan bertan ez ezik, aurretik zein ondoren, euskararen inguruko askotariko jardueraz bete ohi dira Euskal Herriko auzo, herri eta hiriak. Baita Donostia ere: ehun jardueratik gora antolatu dituzte hamasei auzo eta herritako euskara batzordeek.

Ospakizunetarako eguna da, beraz, Euskararen Eguna. Baina ez soilik: aldarrikapenerako eguna ere bada. Izan ere, etengabe defendatu beharreko zerbait da euskara, oldarraldiak hamaika aurpegi dituelako. Horregatik, ezinbestekoa da euskalgintzako eragile guztiek egunero-egunero egiten duten lana: erakunde publikoetako Euskara sailek, euskaltzaleen elkarteek, euskal hedabideek eta auzo eta herrietako euskara batzordeek, besteak beste.

Izan ere, auzo txikienetik hasita, eguneroko inurri lan hori gabe, ezinezkoa da Euskararen Eguna ospatzea. Hori baita euskararen eta euskalgintzaren oinarria: herria. Hortik jaio ziren gau eskolak, euskaltegiak, mugimendu euskaltzaleak, euskal komunikabideak eta abar luze bat. Hortik mantendu da bizirik euskara, herriak egin baitie aurre oldarraldi guztiei. Eta hortik egingo zaio aurre egungo oldarraldiari, baita etor daitezkeenei ere.

Horregatik guztiagatik, euskara ospatzera gonbidatuko zaitu Irutxuloko Hitzak hurrengo orrialdeetan. Lorpenak ospatu egin behar direlako.

Eta, horregatik guztiagatik, euskararen alde egiten ari direnen berri izatera eta honaino iristeko egin direnen berri izatera ere gonbidatuko zaitu hedabide honek hurrengo orrialdeetan. Lorpenak ezagutu eta defendatu egin behar direlako.

IRUTXULOKO HITZA

Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia

943-46 72 36

donostia@hitza.eus

Argitalpen data: 2026ko azaroa

Lege Gordailua: SS-226-05

Testuak: Erredakzioa

Argazkiak: Erredakzioa

Diseinua: Oier Arribas Ciria

Publizitatea: Aizpea Aizpurua Arroio
aaizpurua@hitza.eus · 688-60 71 08

Irutxulo.hitza.eus



David Trujillo Auzoko egitasmoko parte hartzailea eta Amets Ibero Alustiza Bagera Euskaltzaleen Elkarteko kidea.

Auzoan zer ikusi, hura ikasi

Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkarteak doako saioak antolatzen ditu, hirira iritsi berriak euskarara eta tokiko kulturara gerturatzeko. Abenduan, Egiara zabalduko dute proiektua.

✎ 📷 Garazi Etxaniz Idarreta

Urria iritsi bezain laster ikasturte berriari ekin dio Auzoko egitasmoak, beste urte batez, Donostiako Bagera Euskaltzaleen Elkartearen bitartez. Hirira iritsi berri diren pertsonentzako da bereziki ekimena, zeinak helburu bikoitza duen: etorri berriei euskararekiko lehen hartu-emana modu atsegin eta doakoan eskaintzea, eta hiriko zein auzoetako dinamikak, kultura eta ohiturak ezagutaraztea.

IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK
Gora euskara!
Mundaiz bidea, 10
2. solairua - 24. bulegoa
Tel.: 943-42 41 21
20012 DONOSTIA
www.ipuru.com

Gaur egun, astean bi aldiz biltzen dira Bageraren egoitzan, Hernani kalean: astelehenetan arratsaldez eta asteazkenetan goizez. Oinarrizko saio teorikoak eskaintzen dituzte, betiere, parte hartzaileen beharretara moldatuta.

Auzoko egitasmoak aukera ematen die parte hartzaileei euskal kulturara hurbiltzeko

Etorri berrien profila askotarikoa bada ere, gehiengo zabala atzerritik iritsitako pertsonak dira. Aurten, hainbat jatorritako herritarrak batu dira egitasmora, eta, horien artean, ugariak dira seme-alabak dituzten gurasoak; bereziki, emakume hegoamerikarrak. «Emakume hegoamerikar asko daude, seme-alabak D ereduan edo ikastolan dituztenak eta haurrei laguntzeko euskara ikasi nahi dutenak», zehaztu du Amets Ibero Alustiza Bagerako kideak. Hala ere, badaude Donostian jaio baina euskararekin harremanik izan ez dutenak, baita kulturarekiko interesagatik izena eman dutenak ere. Hizkuntza mailari dagokionez, denena oso antzekoa izan ohi da: zerotik hasten dira, agurretatik eta oinarrizko hitzetatik.

Euskara entzuteak piztutako jakin-mina

David Trujillo duela hiru hilabete besterik ez zen iritsi Donostiara, Kolonbiatik, haren familiarekin batera. Banatzaile gisa ari da lanean, eta ez du denbora askorik behar izan konturatzeko euskarak garrantzi handia duela hirian. «Eskariak eramaten ditudan lekuan, guztiek euskaraz hitz egiten dute. Gehienek 'kaixo', 'agur', 'eskerrik asko' eta halakoak esaten dizkidate, eta ni beldur naiz ez ote naizen erantzuteko gai izango», dio Trujillok.

Ilobak, eskolan hasi denetik, euskara ikasten du. Bere amak, Trujilloren koinatak, eskolan izan zuen Auzoko egitasmoaren berri, eta familiako hiru kidek parte hartzea erabaki zuten. Ordutik, lau klasetara joan dira, baita oso gustura joan ere. «Eskolak oso onak dira. Pixkanaka ikasten ari gara, baina dena oso ondo azaltzen dute, pausoz pauso», nabarmendu du. Hizkuntza «oso zaila» izanagatik ere, Trujillorentzat «oso polita da» jendea euskaraz entzutea.

Hizkuntzarekin lehen kontaktua izateaz gain, Auzoko egitasmoak aukera ematen die parte hartzaileei euskal kulturara hurbiltzeko. Adibide adierazgarria ekarri du gogora Trujillok: urriaren 31ko ospakizuna. Kolonbian, beste era batera ospatzen dute Gau Beltza, «era exotikoagoan», Trujilloren hitzetan. Hona iristean, konturatu ziren hemengo kultura oso bestelakoa zela: «Leku guztietan kulturak desberdinak dira, eta horrek ekarpena egiten dio, bai gazteriari, baita iritsi be-











Amets Ibero Alustiza eta Lide Ruiz Telleria, Bagera Euskaltzaleen Elkarteko kideak.

rrioi ere», azpimarratu du kolonbiarrak.

Auzoko proiektuak, bada, zubi lanak egiten ditu herritar iritsi berrien eta tokiko komunitatearen artean. Euskara ikasteaz gain, hiriko ohiturekin bat egiteko eta sareak sortzeko gune ezin hobea bihurtu da Trujillorentzat eta beste hainbatentzat.

Euskaratik abiatutako harrera

Ikasturte berria orain dela gutxi hasi bada ere, Auzoko ekimena 2010ean jarri zen martxan, Taupa Euskaltzaleen Mugimenduak Bagera elkarteari eskaini zionean proiektua Donostian lurreratzea. Hasieran auzoz auzo eta auzotar boluntarioen laguntzarekin funtzionatzen zuen arren, pandemiak eragindako etenaldiaren ostean, Bageraren egoitzara lekualdatu zen egitasmoa. «Lehen, jendearen parte hartze nahiko handia eskatzen zen, auzotarrak arduratzen baitziren etorri berriei auzoa ezagutarazteaz», zehaztu du Iberok. Garai hartan, auzo batzuetan, Antiguan edo Intxaurrondon kasu, oso ondo funtzionatzen zuen ekimenak, baina egoera desberdina zen tokiaren arabera.

Orain, pandemia ostean egin diren lau ikasturteak Bageraren egoitzan bertan egin dituzte, auzotar boluntarioen parte hartzerik gabe. Bagerako kide batek dinamizatzaile lanak egiten ditu, elkarteak berak bildutako materiala erabilita, eta saioak parte hartzaileen beharren arabera moldatzen dira. Auzokon ez dago ez azterketarik, ezta etxeko





Proiektua beste auzoetara iristea dute xede Bagerakoek, baina aurrekontu eta baliabideak mugatuak dira

lanik ere: «Hasieratik argi utzi nahi izan dugu Auzoko ez dela euskaltegi bat. Euskarara lehen hurbilpena izatea nahi dugu, oinarrizko gauzak landuta», dio Iberok. Kaixo eta agur esaten ikastea, taberna batean nola eskatu, batetik hamarrerainoko zenbakiak, koloreak... Ikasturte hasieran, gauza sinpleak lantzen dituzte, eta aurrera egin ahala, parte hartzaileek zerbait zehatzagoa eskatzen badute, pauso bat harago joaten dira.

Finean, Bagerako kideen ustez, euskara etorri berriei egiten zaien harreraren parte izan behar da, eta ez ikasi beharreko beste betebehar bat. Horregatik, hizkuntzara modu naturalean eta presiorik gabe gerturatzea dute helburu, hirian lehen urratsak egiten ari direnei bidea errazteko.

Auzoko, berriz ere, auzoetara

Donostiako auzoetan hasi zen proiektua auzoetara itzultzea da gaur egun Bagera elkartearen helburuetako bat, eta bide horretan eman dute jada lehen aurrerapausoa: abenduan martxan jarriko dute ekimena Egian, kultur etxean, bertako euskara batzordearen eta auzokide baten partaidetzarekin. «Egiako euskara batzordeak behar hori ikusi du, aurrekontu bat aurkeztu dute eta, momentuz, sei saio egingo dira: astearteetan, 17:30ean», azaldu du Lide Ruiz Telleria Bagerako kideak. Kasu horretan, Egiako bizilagun batek egingo ditu dinamizatzaile lanak, eta saioak auzo konkretu horretara egokituko dituzte.

Proiektua beste auzoetara iristea dute xede Bagerakoek, baina aurrekontu eta baliabideak mugatuak dira. Intxaurrondok, esaterako, interesa agertu du etorkizunean antzeko zerbait egiteko, nahiz eta oraindik ezer zehatzik ez izan. «Oraingoz, ez dakigu egingarria den, plan zehatzik ez daukagulako eta aurrekontuaren menpe gaudelako, baina baldintzak ematen badira, egitasmoa zabalduko genuke», ohartarazi du Ruizek.

Euskara elkarteek laguntza ekonomikoak jasotzen dituzte administrazioen eskutik, baina elkarteko kideek «baliabide ekonomiko gehiago» behar dituztela adierazi dute. «Migrazio egoera aldatzen ari da, eta, ondorioz, baliabide gero eta gehiago behar dira egitasmoa aurrera ateratzeko», nabarmendu du Iberok. ●





Arteaga harategian, euskara da lehen hitza

HARITZ ARTEAGA

Arteaga harategiko arduraduna

Euskaraz Barra Barra egitasmoak euskararen erabilera sustatzea eta euskarazko arreta bermatzea ditu helburu, eguneroko merkataritzan eta zerbitzuetan euskarari lekua eginez. Ekimenarekin bat egin duen saltokietako bat da Añorga Txikiko Arteaga harategia, eta Haritz Arteaga arduradunaren ustez, bezeroek eskertzen dute mostradorearen beste aldean euskaraz egiteko aukera izatea.

✎ June Agirre Ansa

Arteaga harategiak hamarkadak daramatza auzoan. Nolakoa izan da zuen ibilbidea?

Gurasoek 1976an ireki zuten harategia, eta 2021era arte egon ziren lanean. Orduan hartu nuen nik erreleboa. Gaur egun, egoera ez da erraza. Lehen ez zegoen hainbeste supermerkatu handirik, baina, orain, edonon ditugu. Denda txikiok egunero egin behar dugu borroka, aurrera egiteko eta eusteko.

Zer nolako harremana duzue auzoarekin?

Auzoan oso inplikatuta gaude, eta bertako egunerokoaren parte gara. Esaterako, aspalditik ari gara igogailu bat eskatzen. Auzoak aldapa handiak ditu, eta jende asko behealdean bizi da. Aldapa igo behar izateagatik, auzotar batzuk ez dute dendara etortzeko aukerarik izaten.

Bezeroek euskarazko arreta aintzat hartzen dutela nabaritzen duzue?

Batez ere, auzo honetan, bai. Adin tarte guztietako jendea bizi da hemen, eta gehienek euskaraz eskatzen digute. Gehien entzuten den hizkuntza ere euskara da. Mostradorearen atzean euskaldun bat egotea eta euskaraz artatzeko aukera izatea asko baloratzen dute, eta hori pozgarria da.

Zer esan nahi du Euskaraz Barra Barra egitasmoaren parte izateak?

Poza ematen dit egitasmoaren parte izateak, euskara hemengoa delako eta gure egunerokoan bere lekua izan behar duelako. Garrantzitsua iruditzen zait bezeroari lehenengo hitza euskaraz egitea eta euskaraz artatzeko aukera eskaintzea. Gaur egun, jende askok «buenos días» esaten du lehenengo, eta pena da. Batzuetan, euskaraz egiten duzunean, arraro begiratzen zaituzte, «zer ari zara esaten?» pentsatuko balute bezala. Herrietan eta auzoetan euskaraz gehiago egiten da, baina hirira joatean egoera aldatu egiten da. Horregatik, horrelako ekimenak beharrezkoak dira, euskarari egunerokoan lekua egiteko eta lehen hitza euskaraz egiteko ohitura zabaltzeko.

Nola ikusten duzu etorkizuna, bai harategiarena, bai auzoko merkataritzarena?

Gazte askok etorri nahi dute auzora bizitzera. Espero dut denda txikietara erostera etortzen jarraitzea, eta euskarak ere auzoan presentzia handia izaten jarraitzea. Izan ere, gero eta jende gazte gehiago dago, eta hori euskararen erabileran ere nabaritzen da. Inguruan, etxebizitza berriak egiten ari dira, eta beste saltoki batzuk ere irekitzekotan dira. Espero dugu supermerkatu handirik ez zabaltzea, horrek denda txikion etorkizuna are gehiago zailduko bailuke. ●



Etxebilan, lehen hitza beti euskaraz

ITZIAR GOIENETXEA
Etxebila Higiezinakeko kidea

Euskaraz Barra Barra egitasmoak euskararen erabilera sustatzea eta euskarazko arreta bermatzen duten saltoki eta zerbitzuak ikusaraztea du helburu. Ekimenarekin bat egin du Etxebila Higiezinak establezimenduak ere. Itziar Goienetxea da bertako kideetako bat.

June Agirre Ansa

1999tik ari zarete lanean Amaran. Nolakoa izan da ibilbidea?
Bi ahizpa hasi ginen, eta gaur egun ere bion artean egiten dugu lan, langilerik gabe. Hasieratik izan ditugu garai zailak. 2008ko krisia, esaterako, oso gogorra izan zen: hilabeteak eman genituen soldatarik jaso gabe. Gaur egun ere egoera ez da erraza, eraikuntza gutxi egiten delako eta bigarren eskuko etxebizitzen merkatuan mugimendu txikia dagoelako. Hala ere, lanean jarraitzen dugu.

Zer harreman mota eraiki nahi izan duzue bezeroekin?
Gertukoak eta zintzoak izaten saiatu gara beti, saltzaileekin zein erosleekin. Harro gaude inor ez dugulako baztertu, ez azalaren koloreagatik, ez hizkuntzagatik, ezta bizi mailagatik ere. Bezero guztiak berdinak dira guretzat. Bezero askok esan digute eskertzen dutela hemen entzunak sentitzea eta gure laguntza jasotzea.

Euskarak zer leku du zuen eguneroko jardunean?
Guretzat garrantzia ehuneko ehunekoa da. Euskaldunak gara, eta etxean txikitatik euskara besterik ez dugu entzun. Gure lehen hitza beti euskaraz da: «Kaixo, egun on, zer moduz?». Mundu hau oso erdalduna da, eta asko harritu egiten dira lehen hitza euskaraz egiten dugunean. Baina euskarazko lehen agurra konfiantza eta lasaitasuna emateko bide bat ere bada. Badakigu ezin dugula beti euskaraz egin, baina ahal dugun guztia egiten dugu.

Zer esan nahi du Euskaraz Barra Barra egitasmoan parte hartzeak?
Gure esku ere badagoela sinesten dugu. Guk egiten dugun heinean, hurrengoek ere egingo dute; guk garrantzia ematen badiogu, besteek ere emango diote. Azken batean, bakoitzak bere eguneroko jardunean egiten duen ekarpen txikiak eragina izan dezake. Garrantzitsua da norberak pauso hori ematea eta euskarari dagokion lekua eskaintzea, besteak ere animatzeko.

Amarako auzo bizitzan ere parte hartzen duzue?
Hemen bizi ez garen arren, auzoko jaietan, Euskararen Egunean eta Amara Berriko ikastolaren ekimenetan laguntzen dugu. Publizitatea eskatzen digutenean ere euskararen aldeko mezua zabaltzen dugu. Gure apaltasunetik, auzoan egiten diren ekintzetan laguntzen saiatzen gara.

Zein mezu helaraziko zenieketen herritarrei?
Guztiak animatu nahi nituzke. Badakigu kalea zaila dagoela eta Amara oso auzo erdalduna dela, baina batek egiten badu, bik gehitzen badute, eta gero hiruk, lauzpabostek, azkenean lortuko dugu. Administrazioak, norbanakoek eta gizarteak sinesten badugu, euskaldunduko gara. ●



Patxi Unzurrunzaga, Zarautzen, 1958an. OIER SAN MARTIN

Patxi Unzurrunzaga, frankismo betean euskal liburuak inprimatu zituen donostiarra

Euskal kulturak frankismoaren hamarkada ilunetan biziraun bazuen, kulturgile eta militante ausart batzuek bizirik mantendu zutelako izan zen. Horietako bat izan zen Patxi Unzurrunzaga donostiarra.

✎ Beñat Parra Rodriguez

Abenduaren 14an, 120 urte beteko dira Patxi Unzurrunzaga donostiarra jaio zenetik (1906-1984). Euskararen eta euskal kulturaren aldeko egin zuen lanagatik garrantzitsua dela eta, edozein euskaltzalek ezagutu beharreko pertsonaia historikoa da Unzurrunzaga.

Hain zuzen ere, frankismo betean, euskarazko zenbait liburu klandestinoki argitaratzen aritu zen Unzurrunzaga, euskal kulturaren sugarra piztuta mantenduz. Bizitza osoan zehar, euskararen eta euskal kulturaren aldeko lan militante nekaezina egin zuen.

Itxaropena, esperantzaren argitaletxea

Imanol Unzurrunzagak luze eta zabal jaso zuen Patxi Unzurrunzagaren historia 1999an, *Bidegileak*



bildumako *Patxi Unzurrunzaga* lanean. Bertan jasota dagoenez, gaztetan hasi zen inprenta lanetan Unzurrunzaga, Donostian bertan, diputazioko inprentan.

Euskal idazle asko erbestera joan baziren ere, Unzurrunzagak Zarautzen gelditzea erabaki zuen

Geroago, Zarautzera joan zen bizitzera, eta Editorial Vasca argitaletxean lanean aritu ostean, Itxaropena argitaletxea sortu zuen han, 1932an. Beste bi kiderekin batera sortu zuen Unzurrunzagak Itxaropena, baina laster, haren esku gelditu ziren inprenta eta editoriala.

Euskarazko zein gaztelaniazko hainbat liburu argitaratu zituen Itxaropenak 1930eko hamarkadako lehenengo urteetan, 1936ko uztaileko estatu kolpe faxista heldu zen arte.

Gerrak dena itzali zuen

36ko gerrak dena hankaz gora jarri zuen, eta ondoren heldu zen diktadura frankistak gogor jo zuen erregimenarekin bat egiten zuen edozeren eta edonoren aurka, baita euskal kulturaren aurka ere, noski. Horrela, euskal idazle asko erbestera joan baziren ere, Unzurrunzagak Zarautzen gelditzea erabaki zuen.

Unzurrunzagak eta haren familiak, ordea, zailtasun ugari bizi izan zituzten. Imanol Unzurrunzagak aipaturiko lanean kontatu zuenez, 1939aren bueltan izan ziren «etxean eta tailerrean abisurik gabeko bisitak, errekisak, mehatxuak, deklaratzera deiak, salaketak, liburuak eta orriak nonbait ezkutatu beharra, euskal usaineko edozein paper puska ere subertsiotzat hartzen baitzen...». Oroitzapen bat ere gogora ekarri zuen autoreak: «Gogoan eta begietan itsatsita geratu zait *Sabin euskalduna*-ren azaleko irudia: guardia zibilen aginduetara gillotinaz liburu koloretsuak ehunka birrintzen eta gu ikaraturik aitari erantzunik gabeko galderak egiten. 1940ko hamarkadaren lehen urteak ziren. Gero jakin ahal izan genuenez, tailerreko zuloren batetik ateratako liburu pakete ezkutuak ziren».

Hala ere, Itxaropenarekin aurrera jarraitu zuen Patxi Unzurrunzagak; izena halabeharrez aldatuta, hori bai: Imprenta Icharopena. Zarauzko Victor Pradera kalean zegoen inprimategia, eta Imanol Unzurrunzagak nabarmendu zuenez, «euskaltzaleen bilgune» izan zen: «Azkue, Orixe, Lekuona, Labaien, Erkiaga, Etxai-





Patxi Unzurrunzaga eta Inazio Ezimendi 'Basarri' bertsolaria mahai batean, 1950eko hamarkadan. ITXAROPENA

Inprimatzeko lizentzien datak faltsutzen zituen Unzurrunzagak, euskarazko lanak inprimatu ahal izateko

de, Jautarkol, Nemesio Etxaniz, Laffitte, Koldo Mitxelena, Krutwig, Lino Akesolo, Salbatore Mitxelena, Santi Onaindia, Artetxe, Placido Mugika, Anizeto Zugasti, Romualdo Galdos, Basarri... —joanen artean ezagunenak aipatzearren— eta beste hainbaten bilgune eta atseden leku klandestino izan zen urte horietan makina bat aldiz Itxaropenako bulegoa eta tailerraren aldameneko baratzean zegoen aitona Patxiren 'txabola'», dio autoreak.

Tranpak eta gezurrak, aurrera egiteko

Itxaropena irekita mantenduta ere, debekuak gainditu eta euskarazko lanak inprimatzen jarraitzeko, azkarra izan beharra zegoen, baita kontu handiz ibili beharra ere. Horrela, inprimatzeko lizentzien datak faltsutzen zituen Unzurrunzagak, euskarazko lanak inprimatu ahal izateko, Imanol Unzurrunzagak azaldu zuenez: «1940ko hamarkadan euskal argitalpenen bat prestatzekotan tranpaz eta gezurrez jokatu beharra zegoen. Hala irten ziren Itxaropena inprimategitik gauez eta klandestinoki, inprimatzeko lizentzien data faltsuaz edota datarik gabe zenbait eliz liburu: *Zeruko Mana gozoa* A. J. A. Ugarterena, *Argi Donea* Baltzola'tar Prantziskorena eta kristau ikasbiderako liburukiak...».

Zehaztapen gehiago ere eman zituen autoreak: «Gero etorriko ziren litografia, fotokonposizioa, ordenagailuak... 1940aren inguruetan ezin ziren, beraz, aurrez inprimatutakoen moldeak —are gutxiago argazkiak— gorde eta hurrengoan erabili, kaxak etengabe berriro hornitu beharra zegoelako. Argitalpen «pirata» berria kaxistek berdin-berdin egin nahi izan arren, bibliofilo azkarrak harrapatuko du han--hemen edizio bereko eta urte bereko agertzen diren liburuotan desberdintasunik».



1947an ireki zuen zirrikitua

Klandestinoki euskal liburuak inprimatzeaz gain, mugarri garrantzitsua ezarri zuen Unzurrunzagak, 1947ko irailean, euskal argitalpenei zirrikitu legala ireki baitzien, Espainiako Prentsa eta Propaganda zuzendari orokorrarekin zuzenean bilduta. Hala kontatu zuen Imanol Unzurrunzagak: «Zarautzen uda igarotzen ari zen Pedro Rocamora jauna, Espainiako Prentsa eta Propaganda zuzendari orokorra. Patxi Unzurrunzagak pentsatu zuen hemengo morroiek baino ankerrago inola ere ezingo zuela jokatu eta beragana jo zuen zuzenki, behingoz bitarteko probintzianorik gabe, poema erlijioso eta folkloriko batzuen argitalpen lizentzia eske. Joxe Artetxe eta biak joan ziren. Eta hara non, Rocamora jaunak entzun, ulertu, onartu eta, aspaldiko partez, euskal argitalpenei zirrikitua zabaltzen dien, gutxien espero zen une latz hartan».

Horrela, zirrikitu hori baliatzen eta gero eta gehiago zabaltzen aritu zen hamarkada luzez, nagusiki, Kuliska Sorta argitaratuz. 1973ra arte argitaratu zituen Unzurrunzagak sorta horretako lanak; guztira, 76 argitalpen izan ziren. Tartean, nazioarteko zenbait idazle entzutetsuren lanen euskal itzulpenak argitaratu zituen Itxaropenak sorta horretan: Camilo Jose Celaren *Pascual Duarte* eta Ernest Hemingwayren *The man and the sea*, besteak beste.

Unzurrunzagaren legatua

Zirrikitua irekita ere, zailtasunak etengabeak izan ziren, hainbat bahitu egin baitzizkion erregimenak Itxaropenari, arrazoi batzuengatik edo beste batzuengatik. Hala ere, tinko jarraitu zuen lanean Unzurrunzagak, baita nazioarteko editoreen kongresuetara Euskal Herriaren izenean joaten ere.

1947an, euskal argitalpenei zirrikitu legala ireki zien, Espainiako Prentsa eta Propaganda zuzendari orokorrarekin bilduta

1984ko apirilaren 14an zendu zen Unzurrunzaga, Donostian. 77 urte zituen eta legatu garrantzitsua utzi zion euskal kulturari. Imanol Unzurrunzagak ondo laburbildu zuen: «Ez zen idazlea, ez plazagizon, ez zuen gogoko protagonismoa, baina Patxi Unzurrunzagari aitortu behar zaio eta eskertu gerra ondoko etenaldian euskal kultura idatziaren testigutzari eutsi izana». ●



Euskararen Eguneko egitarauak



AIETE

Azaroak 27, ostirala

17:00 Marrazkia eta txapa tailerra, Aieteko haurtxokoan.

17:30 Hitzen jolasa, Aieteko gaztelekuan.

18:00 V. Aieteko Izarrak, Aieteko kultur etxean: dantzatu, abestu, magia… nahi duzun ikuskizuna egin!

18:00 *Furor*, Aieteko gaztelekuan.

18:30 Esaera zaharrak, Aieteko gaztelekuan.

19:00 Merienda, Aieteko gaztelekuan.

Azaroak 28, larunbata

17:00 Mahai jolasak, Topalekun.

21:00 Bertso afaria, ACD elkartean.







Abenduak 3, osteguna
18:00 Txokolate jana, Hiru Damatxo plazan.

ALTZA

Azaroak 27, ostirala
19:00 Kantujira auzoan zehar, Herrera Kantuzen eskutik.

Azaroak 28, larunbata
09:00 Euskararen aldeko pala partidak, Herrerako frontoian.

12:00 Egurrezko jokoak haur eta helduentzat, Herrerako plazan.

14:30 Herri bazkaria, Herrera Kirol Elkartean.

15:30 Puzgarriak haurrentzat, Herrerako plazan.

19:30 Suturgi taldearen kontzertua, Nido tabernan.



Azaroak 30, astelehena
19:00 *Esnatu ala hil* liburuaren aurkezpena, Tomasene Kultur Etxean.

Abenduak 2, asteazkena
10:30 Mintzodromoa, Larratxo Kultur Etxean.

17:30 Haurrentzako tailerra, Harria parkean.

17:30 Altza kantuan, Harria parkean.

Abenduak 3, osteguna
17:30 Umeentzako eskulanak eta tailerrak, Harria parkean.

18:00 Euskal dantza Herri Ametsa Ikastolako taldearekin, Harria parkean.

18:30 Dantza emanaldia, Harria parkean.

18:45 Irakurketa publikoa Herrerako plazan: Itxaso Martin.

19:30 Bombadil Sound taldearen kontzertua, Bizargorri tabernan.





AMARA

Azaroak 27, ostirala

17:30 Eskola Dantza Taldearekin denok dantzara!

19:00 Kantu-poteoa Amarako kaleetan zehar, Easo plazan hasita.

Abenduak 3, osteguna

15:00 Amara Berri ikastetxeko haurren eskutik plazaren apainketa eta dantzak.

17:00 Auzoko euskaltzale guztientzat, Easo plazan DJ Mikeltxi eta txokolate jana.

AMARA BERRI

Azaroak 27, ostirala

16:20 Dultzaineroak, erraldoiak... Amara Berri ikastetxeko patioan, Olaeta plazan.

16:30 Kalejira, patiotik, Etxeberritarren plazara.

17:00 Jolasak haurtxokoarekin eta gaztelekuarekin, Etxeberritarren plazan.

17:30 Txokolate jana, Etxeberritarren plazan.

18:00 Euskotribiala, Ilunki kultur elkartean.

20:00 Bingo musikatua, Ilunki kultur elkartean.

Abenduak 2, asteazkena

19:00 Kantujira, Amara Berri Kantuzen eskutik.

Abenduak 3, osteguna

19:00 Irakurraldi musikatua, Ernest Lluch Kultur Etxean.

ANTIGUA

Azaroak 27, ostirala

19:00 Bertso saioa: *Donostia Bertsotan,* Lugaritz Kultur Etxean.

Azaroak 28, larunbata

10:30 Txistularien goiz-deia, Txirainetik abiatuta, auzoan zehar.

11:30 Euskaraz Barra-Barraren *photocall*-a eta oparia, Bentaberri plazan.

12:00 Txistulariak, dantzariak, trikitilariak, kantujira, buruhandiak eta erraldoiak, elizatik Bentaberri plazaraino.











13:30 Azken geldialdia, Bentaberri plazan.

16:00 eta 18:00 Jarduera dinamikoak gazteentzat, Auskalo aisialdi taldearen eskutik, Auskaloren lokalean.

17:30 Antzerkia haurrentzat, Lugaritz Kutur Etxean: *Demode Quartet: Epa! Txiki.*

Abenduak 3, osteguna
19:00 Lekeitioko Euskal Zine Bilerako Film Labur sarituen emanaldia Txirain elkartean. Amaieran, solasaldi goxoa, mokaduarekin.

AÑORGA

Azaroak 27, ostirala
18:30 *Nik ere egin nahi dut* Taupako kartelak jarri, Harrobiaren plazan.

19:30 Elkarretaratzea, Harrobiaren plazan.

Abenduak 3, osteguna
19:00 Pintxo-potea eta GEAren hitza, Jolas Etxean.

Abenduak 11, ostirala
18:00 *Mihiluze*, Jolas Etxeako liburutegian.

Abenduak 12, larunbata
19:00 *Eskailerapekoa* bakarrizketa, museoan.

Abenduak 13, igandea
17:30 Gabon kantuen gaua, zinema zaharrean.

BIDEBIETA

Azaroak 27, ostirala
17:30 Kartel tailerra eta auzoaren apainketa, Eltzegor euskal kultur elkartean.

LEGAZPI 6
EUSKALTEGIA
Egunez egun
euskara lagun
Guridi Maisua, Z/G, Antigua · Kanpandegi, 1, Parte Zaharra
943-21 99 07
legazpi6@legazpi6.eus



Azaroak 28, larunbata
12:00 Kantujira, Eltzegor euskal kultur elkartean.

14:30 Bertso bazkaria, Uliazpi elkartean.

17:00 Umeentzako tailerrak, Salvador Allende parkean.

18:00 Euskaraz Barra-Barra *photocall*-a, Julio Urkijo Ibilbidean, Eroski parean.

19:00 Basati taldearen kontzertua, frontoian.

Abenduak 3, osteguna
17:30 Ipuin kontaketa, Eltzegor euskal kultur elkartean.

EGIA

Azaroak 28, larunbata
17:00 Alfabeto jolasa, haurtxokoan.

18:00 Bingo musikatua, gaztelekuan.

Azaroak 30, astelehena
19:00 Trebeskako plaza dantzen ikastaroa, Plaza Haundin.

Abenduak 3, osteguna
17:00 Lagunak ezagutzen, haurtxokoan.

18:00 Euskal mitologia: *Sua* mahai jolasa, gaztelekuan.

19:30 Elkarretaratzea eta talde argazkia, Kalkutako Teresa plazan.

Abenduak 4, ostirala
17:30 Euskaraz jolasten, hartxokoan.

18:00 Barra-Barra euskarria, Plaza Berrin.

Abenduak 5, larunbata
12:00 Kantujira, Katatik abiatuta.

GROS

Azaroak 27, ostirala
20:00 AEKren bertso afaria.

Azaroak 28, larunbata
17:00 Dantza saioa, Zuhaizti eskolako dantza taldearen eskutik.

18:00 Haurrentzako eta gazteentzako erraldoi eta buruhaundi tailerra, Nafarroa Beherea plazan.

18:00 Jolasak haurtxoko eta gaztelekuaren eskutik, Nafarroa Beherea plazan.

Abenduak 3, osteguna
18:30 Trikipoteoa eta plaza dantzak, Nafarroa Beherea plazatik irtenda.









Abenduak 6, igandea
18:00 Ane Lindane eta Danel Galdaeraren ikuskizuna, Marruma elkartean.

IBAETA

Azaroak 27, ostirala
17:00 Musika.

17:10 1.000 hitzen erronkaren hasiera.

17:30 Ibaetako buruhandiak.

18:00 Jolasak eta tailerrak haurrentzat: eskulanak, aurpegia margotzea, herri kirolak...

18:30 Sorpresa goxo-goxoa!

18:30 Haurrentzako jolasak (8 urtetik gora), Jokoenearen eskutik.

19:00 Euskal dantza herrikoia.

19:30 Pintxo-pote musikatua, auzoko tabernekin elkarlanean.

20:30 1.000 hitzen erronkaren amaiera.

20:45 Argazki kolektiboa.

Azaroak 29, igandea
12:00 Antzerkia frontoian: Zirkozaurre konpainiaren *Vademecum*.





Abenduak 3, osteguna
17:30 Kartelak hormetan jartzea.

INTXAURRONDO

Azaroak 27, ostirala
17:00 Ume eta gazteentzat jolasak, hautxoko eta gaztelekuen eskutik, Bernart Etxeparen plazan.

17:30 Euskaraz Barra-Barra *photocall*-a, Bernart Etxeparen plazan.

18:30 Gaztaina erreketa eta plaza dantzak, Bernart Etxeparen plazan.

Azaroak 28, larunbata
16:30 eta 18:30 Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta Marigorringo pailazoen *Musu bete urte* ikuskizuna, Intxaurrondo Kultur Etxean.

Abenduak 3, osteguna
17:30 Ipuin kontaketa, txapa tailerra eta merienda, Intxhaurgunean.

18:00 Elkarretaratzea, Bernart Etxepare plazan.

LOIOLA

Azaroak 28, larunbata
17:00 Mahai jokoen tailerra, Hontza kultur elkartean.

Abenduak 5, larunbata
12:00 Euskaraz Barra-Barra *photocall*-a eta oparia, Eliza kalean.

GROSEKO INDARRA SURF ESKOLA TALDEA



IKASI, GOZATU
BIZI, ELKARBANATU
695-75 44 71
grosekoindarra.com

Irudikatu zure lekua munduan
SANTO TOMAS LIZEOA



14:30 Basurde bazkaria eta euskal kantak, Holtza kultur elkartean.

LOIOLAKO ERRIBERA

Azaroak 27, ostirala
17:45 Tokiz toki, auzoz auzo tailerra, auzoko lokalean.

MARTUTENE

Azaroak 27, ostirala
17:00 III. Bideoklip Lehiaketa, Etxarrienen.

17:00 Euskararen eguna ospatzen, haurtxokoan.

Azaroak 28, larunbata
17:00 Euskal kulturaren hieroglifikoak, gaztelekuan.

Abenduak 3, osteguna
17:30 Euskal erronkak, haurtxokoan.

18:00 *Pasahitza* jolasa, gaztelekuan.





19:00 Euskararen aldeko elkarretaratzea eta argazkia, parkean. Tauparen manifestua.

Abenduak 4, ostirala
18:00 Ipuin musikatua, Etxarrienen: *Asto batek entzun zituen abenturak.*

MORLANS

Azaroak 29, igandea
11:30 Kantujira auzoan zehar, Etxabeneko plazatik abiatuta.

12:30 Pintxo jana, Leire plazan.

12:30 Euskaraz Barra-Barra *photocall*-a eta oparia.

PARTE ZAHARRA

Azaroak 27, ostirala
19:00 Bertso saioa, Plaza Berrian.

00:00 Euskal karaokea, Herria tabernan.

Azaroak 28, larunbata
12:00 Kantujira auzoan zehar, Plaza Berritik hasita.

12:00 Erraldoiak eta buruhandiak auzoan zehar, Plaza Berritik hasita.

14:00 Euskararen aldeko auzo argazkia, Plaza Berrian.

14:30 Gazte bazkaria, Arrano Beltza euskal tokian.

18:00 Erromeria, Plaza Berrian.

21:00 Erromeria, Trinitate plazan.

Azaroak 29, igandea
12:00 Mutxikoak, Bulebarrean.

17:00 Haurrentzako ipuin kontalaria eta txokolate jana, Kresala elkartean.

TXOMIÑENEA

Abenduak 3, osteguna
18:30 *Ez onartu zapalkuntza* lelopean elkarretaratzea, Txomiñeneko biribilgunean.





Euskara eta kirola beti lagun



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola

Hizkuntza-ekologiaren eta soziolinguistika garaikidearen prisma teorikotik abiatuta, ezinbestekoa da gure hiri-espazioaren konfigurazio sinboliko eta komunikatiboaren inguruko hausnarketa sakon eta dialektiko bat artikulatzea. Donostia bezalako metropoli kosmopolita eta kulturanitz batean, hizkuntza-komunitate minorizatu baten biziraupena eta hegemonia kulturalaren birbanaketa ezin dira inertzia historikoen edo borondate indibidual soilen menpe utzi. Aitzitik, euskararen normalizazio-prozesuak eskatzen du gizarte-ehunaren egitura guztietan eragingo duen praxis kontziente, egituratu eta transbertsal bat abian jartzea; alegia, hizkuntza-ohituren kristalizazio diglosikoak deseraikiko dituen eta ahalduntze kolektiboaren paradigma berri bat eraikiko duen paradigma soziokultural berritzaile baten aldeko apustu irmoa egitea. Horretarako, ezinbestekoa da norbanakoaren kontzientzia linguistikoa komunitatearen kohesio-ardatz bihurtzea, espazio publiko zein pribatuetan euskararen presentzia, prestigioa eta erabilera-funtzioak modu sistematikoan bermatuz, gure nortasun kolektiboaren eta etorkizuneko bizikidetza demokratikoaren berme gisa.

Ez duzu zertan dena irakurri, baina, geratu honekin: **Donostian BAGERA euskaltzaleak.**

bagera

www.bagera.eus